



Hanoi, Vietnamgo hiriburua.

Lur Mallea

Vietnam

Azken hamarkadetan merkatu ekonomiari eta turismoari atek zabaldu dizkion lurralde honek aberastasun asko du eskaintzeko: hondartzak, oihanak, uharteak, tenplu zaharrak eta bizitasun handiko hiriak. Norbera bakarrik zein taldean joan daiteke bat hara, lasai asko. Historian zehar hainbat guda eta borroka jasan eta gero, Vietnam lastertasun handiz ari da bere burua berriro osatzen. Gaur egun, txirotasuna eta prostituzioa dira herrialdearen arazo nagusiak.

Kokapen pribilegiatua du. Asiako Hegoekialdean dago, Indotxinako penintsularen barruan. Pentsa, "s" hizkiaren forma duen lurralde honek 2.300 kilometroko kostaldea du. Iparraldean, Halong badiaren parte diren 1.600 uharte eder baino gehiago aurki daitezke eta hegoaldean, berriz, Mekong ibaiaren delta zabaleko arroz-so-roak. Muga tarte horretan dira 50 probintzia, 54 etnia eta 83 miloi eta erdiko biztanleria.

Vietnamgo Errepublikak Sozialista nabarmen aldatu da 1990. hamarkadaz geroztik. Orduan erabaki zuen gobernu zentralak hainbat neurri ekonomiko bertan behera uztea, urteetan etsai izandako AEBekin harreman diplomatikoak berriro ekitea, eta

turismoa garatzea. Harrez gero, Vietnamgo aintzinako kulturak eta paisaia ederrek Europako bisitari ugari erakarri dituzte. Hasieran gutxi batzuk izan ziren; gaur egun, milaka lagun jaso ohi ditu. Lurraldeak berezkoak dituen tradizio zaharren eta modernotasunaren adierazle diren elementuen arteko nahasketak turista klasiko zein motxilero asko liluratu ditu jada. Udazkena da hara joateko sasoirik onena, eta herrialdearen iparraldeaz zein hegoaldeaz gozatu ahal izateko trena ala autobusa hartzea da onena.

Iparralde lasaia

Edertasun handiko tokiak da Vietnamgo iparraldea. Bertan





Erljio ugariena budista da.

Vietnam 83 milioi eta erdiko biztanleria dauka.



aurki daitezke oihan tropikalak, ur-jauziak, mendi ibilbideak... Mendialdean hainbat etniako tribuak bizi dira, eta merkataritzan zein artisautzan trebeak izateagatik dira ezagunak. Kostaldean, berriz, ikustekoa da kararizko uhartez osaturiko Halong badia zeina Unesco-k gizateriaren ondare izendatu duen. Magia eta kondairaz beteriko tokiak da hura. Legendaren arabera, dragoi handi batek buztanarekin ura jotzean lurrazpitik sortu omen ziren iriak. Barrualdean, Hanoi hiriburu zaharra dago. Laku eta parke ugari ditu hiriak, baita mila eta bostehun urtetik gorako pagodak, Frantziako kolonia zeneko eraikinak zein etxe-orratz garaiak ere. Merkatu zaratatsuak, gastronomia bikaina eta gau giro bizia izateagatik da ezagun Hanoi.

Erdialdea, ederrena

Vietnamgo hiririk ederra izateagatik da ezagun Hue. Nguyen enperadorearen garaian, herrial-

dearen zentro kulturala, intelektuala eta historikoa izan zen hura. Estaturatuaren kontra izandako berrogei urteko gudan kalte handiak jasan bazituen ere, Hue-n oraindik orain zutik diraute hirbilduak eta enperadoreen hilobiek. Ikusi beharreko beste hiri bat Hoi An da. XV. mendean portu garrantzitsua izandako toki honek egoera onean diren hainbat pagoda eta tenplu biltzen ditu.

Hegoalde tropikala eta ekintzailea

Epelagoa eta nortasun propioa du hegoaldeko eskualdeak. Ho Chi Minh hiriburuak (Saigon zaharra) ez du inoiz atsedetik hartzen. Negozio gune handi izanik, etorkin asko erakartzen ditu eta bere kaleak bizikleta, motor eta taxiz gainezka daude beti. Hegoaldera joanez gero, hamaika ibai eta kanal aurki daitezke. Haietan barna transbordadoreak eta era guztietako beladun txalupak ibiltzen dira. Mekong ibaiaren delta zabal honetan, arroz-soroek osaturiko mosaiko koloretsuak nagusi dira. Arroza da Vietnamgo elikagai nagusia baita esportazioko produktu garrantzitsua ere. **F**



Prostituzioaren madarikazioa

Legez kanpokoa da prostituzioa Vietnamen. Baina errealitate legearen gainetik dago, eta emakume askoen eguneroko zeregina da une honetan. Prostituten artean adingabeak dira nagusi. Unicef-en arabera, munduko ume esplotatuen erdiak Camboya, Laos edo Vietnam du jaioterrri. Somaly Man adituaren esanetan, "Vietnamgo sistema totalitarioak ez die erakundeei emakumeen trafikoaren aurka lan egiten uzten", beste estatu batzuek egiten duten bezalaxe. Datuen arabera, azken hiru urteetan emakumeen trafikoak gora egin du Asian, ustelkeria hedatu eta mafien antolaketa hobetzearekin batera. Vietnamgo gobernuaren alde esan beharra dago urte askoren ondoren, azkenean, preserbatiboen salmenta onartu egin duela hoteletan eta pentsioetan. 2007. urte hasieran ezarritako lege honek, HIESAren aurkako borrokan urrats txiki bat suposatu du.